



EDURNE PASABAN ▶ MENDIZALEA

«Latzak pasatu genituen K-2n, baina han ez zara arriskuaz konturatzen»

ZORTZIMILAKOAK ▶ Bi gailurren bila abiatu da: Nanga Parbat (8.125 m.) eta Broad Peak (8.047m.)
OPORRAK ▶ Bizikletaz, Mongoliatik Pekinera joango da bi saiakera berri horien ostean ▶ 4-5



Hitzaren egoitzan aritu zen Edurne Pasaban mendizalea tolosarra erronka berriei buruz hizketan. LEIRE MONTES



IÑIGO TERRADILLOS

Garai bateko autoen eta motoen xarma berezia

TOLOSA ▶ Karts-ak eta motoak aritu ziren atzo Tolosako kaleetan; gaur amaituko da ibilgailuen eta produktuen erakusketa ▶ 6

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

hitza **TOLOSAN**

GOZATU INSURUEZ

LEA

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik atera
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerrien proiektuak
- Hilerrien eraldaketa
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobi apaingintza
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozermiak
- Estantziazko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 Tolosa
Tel/Faxa: 943 67 01 14
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552

Bidasoa kalea, 7 behea - 20100 Errenteria
Tel/Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41
Zerbitzu Iraunkorra: www.landarri.com

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1952

GIZON eta MUTILENTZAT
pijamak, boxer's bainujantziak

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO GURRUTXAGA

Hazi ugari erein da



Goizez. Egunsentiak duen freskura, ume edo gaztetxoak duen poza zein ilusioaren pareko da. Bere taldeko edo eskolako elastikoa jantzi eta pozik abiatu da, gaur dagokion partida jolastera. Gogoz ekin dio, kopeta eta bizkarra izerdi tantez bustita ageri ditu. Egunsentiak ere gau osoko partida jokatu duela nabari du, ihintza azaldu du hostoetan eta belar zipzietan.

Arratsaldez. Bazkalosteak eskatzen

duen sosegua adierazten du gurasoak. Goizez bere seme-alabak halako kiroldegira eraman eta kirolean ikusi izanaren satisfazioa du. Edota kuluxka baten ondoren mugitu bitarteko unea baizik ez da. Arnasketak hor dirau, ez da eten, baina ez da goizean bezala nabarmentzen. Bazkalosteko itzalak ere hor dirau, ez da amildu, baina lotsati ageri da inoren pean.

Gauetz. Hainbat saio prestatu beharrak dakarren buruhaustea antzeman da kirol monitoreengan. Bere mugikorrean astindu ditu arduradun mordo baten eta kirolari gehiagoren zenbakiak. Ohean sartu aurretik hiruzpalau dei jasoko ditu oraindik; esker deiak baino maizago, min, lesio, sukar, ezin, falta deiak izango dira. Zintzo be-

teko du hutsunea, halere. Lasai lokartuko da, lanak ondo burututakoaren ziurtasunean. Gauak ere patxadaz hartuko du bere tokia, ilargia zaindari ona denaren aburuz.

Beti. Umea edo gaztetxoa irtengo da garaile, bere gorputza zaindu eta indartuko du, irabazten eta galtzen ikasiko du, kirol ezberdinak ikasiko ditu, kiroltasunez jokatzen asmatuko du, inguruko herriak eta kideak tartekatuko ditu, bazterketak uxatuko ditu.

Ikasturtea amaitzean den honetan, hazi ugari erein da urtebetean. Oso gutxi emango dute kirolari on baten fruitua, baina askotatik erneko da landare osasuntsua, taldean moldatzen jakingo duen fruitua.

GUTUN@K ▶

Zentro Gerontologikoaz esandakoetatik gertaeretara

Pertsona/eguna kostu handiarekin batera, Euskal Herria plazako Zentro Gerontologikoa ixteko Gipuzkoako Foru Aldundiak erabili zuen argudioetako bat Tolosaldeak 65 urtetik gorako pertsonentzat 100 biztanleko plaza kopuru handia zuela, Gipuzkoako lurraldeko batz bestekoa gaindituz, izan zen. Zentro Gerontologikoaren itxierak egoera irregular hori orekaten omen zuen.

Giza zerbitzuen mapak zioen bezala, biztanlegoaren zehazteagatik, plaza berriak eraiki beharko lirake, eta ez desegin. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak egoitza berriak eraikitzea aurrekusi du gure lurraldean: 120 plazako egoitza eta beste 25 plaza eguneko zentroan Zumarragan eta 100 plazako beste egoitza bat Lazkaon. Plaza horiek, Gizarte Zerbitzuetako diputatuak prentsan maiatzaren 7an zioen «azpieskualde horietan iraultza handia emango da, batz bestekoaren azpian egotetik gainetik egotera pasatuz». Zumaian 70 plazako beste egoitza bat eraikitzeko proiektua dago eta Gipuzkoako beste hainbat herritan gehiago egin beharko dituzte 2010 urterako gizarte zerbitzuen mapan kalkulaten diren 5.462 plazetara iristeko. Gure azpieskualdean, mapa horren arabera, urte horretarako 75 plaza gehiago behar-

ko dira adineko pertsonentzat.

Zentro Gerontologikoaren itxieraren ondoren izan den jaitziera dela medio, eta lureamendi egoitzan murriztu diren plaza kopuruarekin batera, eta eraikuntza berri horietarako beharko diren dotazio igoeragatik, gure azpieskualdea 11. postura pasatuko da oraingoz, Gipuzkoako 15 azpieskualderen artean. Batz bestekoaren oso azpitik gaude, ikus daitekeenez. Alderantziko desoreka horri egoera irregularra orekatzea deitzen dio Gizarte Zerbitzuetako diputatu andereak.

Maiatzaren 12an prentsan irakurri genuen —hasieran ustekabez eta pozik— Foru Aldundiak Gipuzkoako eguneko zentroen eskaintza zabaldu behar duela 121 plaza-tan astegunetan eta 119 plaza-tan jaiegunetan. Albiste berean komentatzen zen zabalakunde horrekin Tolosaldeko eguneko zentroen mapa 121 plazatakoa zela astegunetan eta 16 plazatakoa jaiegunetan. Hasierako poza putzura erori zen gertaeren errealitatea topatutakoan: Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioak esan zigun bera ere harritu egin zela egunkariako berriarekin, ez zekiela nondik ateratzen kopuru horiek, errealitatearekin bat ez zetozelako. Informazio hori gero berretsi egin zuten eskualdeko gizarte zerbitzuetara deitutakoan. Plaza kopurua askoz ere txikiagoa da —71 plaza astegunetan eta 10 plaza jaiegunetan— eta aurten egoera aldatzeko itxuririk ez dauka, dirudieenez.

Hirugarren Adineko egoi-

tza batean sartzeko itxaron zerrendetan dauden pertsonen senitartekoei deialdi bat egin nahi genieke lerro haue-tatik. Oraindik konpondu gabe dagoen arazoaren aurpegia dira. Aurreko aurpegia Gerontologikoko egoiliar ohien senitartekoena zen. Eta orain zer plataformako kideokin harremanetan jartzera deitzen ditugu, partikularki edo asteartero 19:00etan Tolosaldeko Kultur Etxean egiten ditugun bileretara joanez.

JOSE MANUEL LEUNDA DOLADO (ETA ORAIN ZER PLATAFORMA) ▶ TOLOSA

Bi urte herri borondatearen aldeko jaiak antolatzen

Bigarren urtez, anoetarrok Udalaren aldetik jasaten ari garen bazterketa dela eta, herri borondatearen aldeko jaiak antolatuta beharrean aurkitu gara. Bi urte bete dira udal hauteskundeak egin zirela. Bi urte herritarren borondatea zapalduz eta anoetarrok aukeratutako udal ordezkariak ez errespetatu.

Orain, jaiak igaro ondoren, Festa Alternatiboen Batzordeak egiten duen balorazio oso positiboa da. Herritarren partaidetza eta babesa ikusirik, agerian geratu da herriaren nahia. Jendearen ilusio, gogo eta indarrari esker, gai izan gara oztopo guztien gainetik jai herrikoi eta parte-hartzaileak aurrera eramaten.

Ekintzei begirada bat ema-

ten hasita, azpimarratzekoa da lehenengo asteburuan ospatutako antzerkiak, sega apustuak eta azokak izandako arrakasta. Hala ere, aipatu gabe ezin utzi erantzun zabalak izan duten beste hainbat ekintza: Pirritx eta Porrotxen emanaldia, herri afariak, gazteen dantza, disfraz eguna, ostrialeko manifestazio jendetsua...

Beraz, Festa Alternatiboen Batzordeko kideok oso gustura gaude herri borondatearen aldeko jaiak izan duten erantzunagatik eta eman dituzten emaitzengatik.

Hala eta guztiz ere, gure ondorioz garrantzitsuean hau da: Udalaren partetik jasaten dugun bazterketa politikak berdin-berdin jarraitzen du eta honen aurrean, herri presioa beharrezkoa da. Borrokatzen jarraitu beharra dago anoetarren eskubideak errespetatu. Anoetan, hurrengo mobilizazioak San Joan bezpera gauean izan dira, San Joan suarekin batera, eta jende guztiari bertan parte hartzeko deia luzatzen diegu Festa Alternatiboen Batzordetik.

Bukatzeko esan, hurrengo urtean herri borondatearen aldeko jaiak antolatuta beharrik ez izatea espero dugula, baina horretarako, beste behin ere PNV-EAko Nieves Alarcos, Jesus Mari Arsuaga eta Mari Carmen Egurzari lapurtutako eserlekuak itzultzea exijitzen diegu. Dimittitu dezatela eskatzen dugu. Anoetarren eskubideak errespetatu!!!

GORKA OTXOA-AIZPURUA ETA ALAZNE RUIZ (FESTA ALTERNATIBOEN BATZORDEA) ▶ ANOETA

TOLOSALDEKOHITZA. INFO ▶

Zer iruditzen zaizu lantokietan erretzea debekatzea?

Erretzaileontzat mesede! Egia esan osasunean irabaziko dugu eta baita lankideetan ere, batzuei badakigu eta ez zaiela batere gustatzen. Bizioak bizio, ohitura onak hartzen joan behar!

ERRETZAILEA ▶

Oso ondo iruditzen zait, lantokia ez da lekurik egokiena erretzeko. Espero dut erretzaileek beteko dutela... Animo. Ez da hain zaila izango!

EZ ERRETZAILEA ▶

Gai honekin nahiko zorrotza naiz. Ez naiz inoiz erretzailea izan, baina beti irentsi behar izan ditut besteen keak, orain dela urte gutxi arte normaltzat jotzen baitzen erretzaileak edozein tokitan erretzeko eskubidea zuela. Debekatuta eduki beharko lukete toki publiko guztietan erretzea. Eta tabernak eta horrelako tokiak ere publikoak dira. Zergatik? Publikoa den tokian edozein sar daitekeelako, erretzaileak ez erretzaileak, eta erretzaile den pertsona batek erretzen ez duenaren kea arnasten ez duenez, erretzailea ez denak ez du zertan erretzaileen kea arnastu eta sufritu beharrik. Errespetu kontua da, nahiz eta gure kulturaren, urte askoriorik garrantzitsuean hau da: Udalaren partetik jasaten dugun bazterketa politikak berdin-berdin jarraitzen du eta honen aurrean, herri presioa beharrezkoa da. Borrokatzen jarraitu beharra dago anoetarren eskubideak errespetatu. Anoetan, hurrengo mobilizazioak San Joan bezpera gauean izan dira, San Joan suarekin batera, eta jende guztiari bertan parte hartzeko deia luzatzen diegu Festa Alternatiboen Batzordetik.

XXX ▶

Eta, aurreko iritzia bukatzeko, are gutxiago lantokietan. Ez erretzaileak ez du eguneko hainbeste ordu pasa behar besteen kea arnasten.

XXX ▶

Lanak eta lanak izaten dira, eta dena begiratu dehar da. Ez da berdina ofizina baten lan egin edo eraikuntzan.

MIREN LURDES ▶

Erretzea debekatzea baino hobe izango litzateke erretzaileentzako guneak jartzea, horrela nahi ez duenak ez du kerik jasan beharko, eta erretzaile denak lasai erre ahal izango du inori kalterik egin gabe.

XXX ▶

MINUTU ERDIAN ▶

Adunan eta Ikaztegieta ere arraunean

KIROLA ▶ Aurtengo sanjoanetako batel estropadek ikusmin handia piztu dute. Tolosan bertan, Zumardi txikiaren inguruan, datorren igandeko kanporaketarako entrenatzen ari diren gazteak ez dira bakarrak. Aduna eta ikaztegieta parean ere *ezkutuan* badira entrenatzen ari direnak. Batzuk ez hain gazteak, baina espezializazio handikoak.

50 urte apaiz bete dituztelako, eskertza meza

ERLIJIOA ▶ Gaur 12:30ean eskerrak emateko meza izango da Santa Maria parrokiaren Tolosan lanean ari diren Manuel Aranguren Pagola frantziskotar aginarrrak, Jose Antonio Gorriti sakramentino oderiztarrak eta Jose Uranga apaiz legorretarrak 50 urte bete dituztelako apaiz lanetan. Herri-tar guztiak daude gonbidatuta mezetara.



Manuel Aranguren —ezkerrean— eta Jose Antonio Gorriti. J.SAIZAR

Eudel-eko ordezkariak Tolosan bisitan

POLITIKA ▶ Euskal Udalen Elkarteko —Eudel— batzorde batek bilera bat izan du Tolosan aste honetan, ostiralean, elkarteko zuzendaritzako kide den Jokin Biddaratz alkateak gonbidatuta; herria bisitatzeko eta proiektu nagusiak ikusteko aukera izan zuten Eudel-eko ordezkariak. Duela gutxi Bruselan eta Amsterdanen izan da zuzendaritza osoa.

ESANA ▶



JOSEBA EGIBAR
LIZARTZAKO ALKATEA

«Adostasunik ez balego, Axurdarioren proposamenak aurretik jarriko genituen»

DATUA ▶

160

ikasle. Aste honetan izan dira selektibitateko azterketak. Tolosaldeko ikasle kopuru hori joan da: Laskorain ikastolako 73, Orixe institutuko 48 eta Hirukide ikastetxeko 39.

PASADIZOA ▶

Boliviako krisian lekuko. Manuel Egiguren goiatzarrak 41 urte daramatza Bolivian. 1982tik Beni eskualdeko gotzaina da eta hango herri indigenekin lanean dihardu. Aste honetan izan den gobernu krisian lehen lerroko lekuko izan da eta bere testigantza eta iritzia eman du ezagutzera Euskal Herriko hainbat komunikabidetan.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



JESUS PORTILLO ▶ BIHOTZKO TRANSPLANTATUA

«Organo emailerik gabe ez dugu zereginik»

Imanol Garcia ▶ Asteazkenean izan zen Organo Emaileen Nazioarteko Eguna. Duela ia urtebete, 59 urterekin bihotza transplantatu zioten Jesus Portillo ibartarrari. **Zergatik behar dira emailerik gabe?** Bestela ez dugulako zereginik. Batzuek tratamenduekin urte bat, bi edo lau irau dezakete, baina nire kasuan ez.

Beste aukerarik ez zenuen. Taupada-markagailua nuen, baina failatu zuen, gero defibriladore jarri zidaten eta tratamenduan jarraitzen nuen. Astebete etxean, bi aste ospitalean nembilen ez nuelako paxarik egiten, odola ez zelako giltzurdinetara iristen. Gaizki nengoen eta Valdecillako ospitalera (Santander) balorazioa egitera joateko esan zidaten.

Nola joan zen? Apirilaren 23an sartu eta abuztuaren 20an atera nintzen. Ez nintzela aterako uste nuen. Organo bat agertu zen istripu batetik eta horri esker. **Orain nola zaude?** Pixkanaka joan naiz hobetzen, tratamenduekin, dialisiekinekin... Bi egunetan ez balitz organorik agertu, han geldituko nintzen. Orain ondo nago.



BERRIA



GOGOIA

«Ez da lehen bezala; Nanga Parbat igotzea baino bizikleta buelta egiteko gogo handiagoa daukat»

guntzen dutena, eta ez pertsona edo mendizalea.

Bolada bat geldirik pasatu behar izan duzu, K-2n izandako izozketen ondoren. Pentsatzeko denbora asko.

Bai, hala izan da. Abuztuan izan nituen izozteak, abuztua-iraila ospitalean pasatu nuen, anputazioak irailan... Eta ordutik hona errekupeazioan. Pentsatzeko denbora izan dut. K-2n latzak pasatu genituen, baina han ez zara konturatzen, hemen konturatzen zara gehiegi arriskatu duzula. Konturatzen zara gauzak lasaiago hartu behar direla. Gainera oso lagun ziren bi mendizale hil zaizkit mendian, aurrena Manel eta gero Christian. Azkenean, mezezi al du? galdetzen duzu.

Eta hala ere bazoaz berriro.

Bai, baina ez noa lehengo mentalitate berarekin. Orain gauzak askoz ere gehiago pentsatzen ditut.

Baina mendian zaudenean, arrisku une baten aurrean erabaki egin beharko duzu.

Bai, badakit bihar [ostegunagatik] joan eta txipa aldatuko dudala erabat. Azkenean askotan aurrera egiten duzu arrisku une horretan, anbizioak menperatzen zaitu erabat. Horrek izorratzen nau asko, nik ez kontrolatzea hori.

Hau bukatu ondoren, zer?

Gero lasai hartuko dut. Printzipioz aurtun ezer gehiago ez dut egin nahi mendian. Ikasketa batzuk egin nahi ditut.

Zer ikasketa mota?

Enpresetan hitzaldi dezente ematen hasi naiz. Bartzelonako unibertsitatean zuzendari taldeentzako hitzaldiak emateko ikastaroa egin nahi dut. Bide horretatik jarraitu nahi dut. Mendia eta enpresa erlazionatzen ditu, paraleloak dira gauza askotan: talde dinamika, motibazioa, planifikazioa... AEBetan asko egiten da eta hemen ere orain hasi dira.

Ez zenuke inoiz imajinatuko horrela arituko zinenik.

Ez, baina interesgarria da, asko gustatzen zait. Menditik beste adar bat sortu da espero gabe. Orain, adibidez, kontsultora batekin ari naiz lanean, enpresentzat gauzak prestatzeko. Azkenean menditik ezin duzu beti bizi. Bizitza beste era batera planteatzen duzu. Ingenieritza ikasi nuen, aitaren enpresan lau urte egin nituen lan, baina ez dut bide horretatik jarraitu nahi. Abeletxe jatetxera hambostetik behin joaten naiz Andorran bizi naizenetik, hango martxa eramateko beste pertsona batekin. Andorra eta Euskal Herria artean bizi naiz, mutil-laguna hangoa da eta.

Andorran ba al duzu zereginik?

Beno, hitzaldiak ematen ditut eta La Seu de Urgellen dagoen arropa enpresa batentzat diseinuak egiten ditut.

Lan desberdin asko daukazu.

Bai, horregatik Abeletxera etortzen naizenean lasaitu eta erabat deskonektatzeko balio dit.

ARRISKUA

«Azkenean askotan aurrera egiten duzu arrisku une horretan, anbizioak menperatzen zaitu erabat»



LEIRE MONTES

ENPRESA

«Mendia eta enpresa mundu paraleloak dira gauza askotan: talde dinamika, motibazioa, planifikazioa...»

DI-DA BATEAN ▶

Zer da mendizaletasuna? Azkenean, bizitzeko era bat, nire bizitza mendiaren inguruan dago, baina gustatzen zait mundu horretatik ateratzea ere.

Mendiaren alde ona eta txarra. Asko ikasi dut bizitzaz mendian. Urte hauetan hazi egin naiz mendian.

Eta alde txarra? Denbora asko kentzen dit, gehienbat familia eta lagunengandik.

Zein paper dute familiak eta lagunek zure bizitzan? Babes handia ematen didate, beti hor daude, Tolosako betiko la-

gunak oso gutxitan ikusten ditut, baina harremana mantentzen dut beti.

Imajinatzen al duzu bizitza mendirik gabe? Ez.

Beste kirolrik? Txirrindua, mendiko eskia asko egiten dut, eskalatu...

Beste abenturarik? Abenturarekin erlazionatutako edozein gauza, bizikleta bidaia hau, adibidez.

Zer da arriskua? Oso gertu daukagun eta oso kontuan eduki behar dugun faktorea. Askotan ez gara kontziente horretaz.


TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruia. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun zentroa: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



1007
Iraultza da!
Bere zain gaude

1007

TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14-A • TOLOSA
Tel.: 943 650337 Faxe: 943 652938
e-maila.: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

1007



TOLOSA ▶

«Salmenta politikak lortu dira azokan aste honetan»

Sanjoanetako Azoka Berezia gertu izateak eragina izan zuen atzo saltzaileen artean

PABLO ALBERDI

Giro polita bizitu genuen atzo Tolosako azokan. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta, goizaren bukaeran, salmenta politikak lortu ziren. Sanjoanetako Azoka Berezia gertu izateak eragina izan zuen saltzaileengan, eta datorren astean ikusiko dugunaren aurrierapen ederra izan zen.

Perretxikoen zerrenda, adibidez, oso zabala izan zen, eta barazkiena ere bai. Are zabalagoa izango da datorren astekoa.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Landareak		
Dhalia	2,30	-
Txinar krabelina	2,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Porrua	2,40	-
Germikako piperrak	0,20	-
Lekak	0,35	0,40
Kizkur aza	6,00	-

Bertako produktuak
Barazkiak

Ziazerba	1,00	1,50
Tolosako babarrun.	8,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolabxa	1,50	2,00
Pepinoa	2,00	-

Abereak

Indioilarra	4,30	-
Ahatea	2,50	-
Antzarra	11,00	12,00

Produktu ekologikoak

Baraturia	1,60	6,00
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Intkaurra	4,00	6,00
Ahuntz gazta (200g.)	3,00	-
Ogia (800g.)	2,55	-
Azukrea	3,35	-

iragarki laburrak ▶

Sukaldeko laguntzailea, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak: herri erakundeak. Informa zaitez. 943 65 01 93 telefonoan.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzak. Astean 35 ordu. Informatu. 943 65 01 93.
Suhiitzaileak. Hurrengo deialdiak:

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Garai bateko autoek eta motoek sortzen duten xarma berezia

Karts eta motoak aritu ziren atzo Tolosako kaleetan; gaur amaituko da ibilgailu klasikoen eta produktuen erakusketa



Auto klasikoen eta antigoalekoen aukera handia da ikusgai Ferialekuan; motoak ere badaude. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Goizean goizetik hasita jende ugari gerturatu zen atzo Tolosako Ferialekura, Ibilgailu Klasikoen XI. Nazioarteko Erakusketara. Urtero bezala, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Elkarteak antolatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak babestu dute ekimena.

Atzo goizean eta arratsaldean, Ander Vilarriñoren eta bere taldearen eskutik karts-en erakustaldia izan zen. Arratsaldean, II. Oria Zirkuitua izan zen ikusgai herri barruan. Bi denborako motoak eta lau denborakoak aritu ziren.

Bestalde, atzo bezala, gaur ere egun osoan zehar Ferialekuan ikusgai egongo direnez, haiez gozatu ahalko da. Izan ere, 1940ko Cadillac La Salle, Rolls Royce, Bugatti, 1961eko Ford Thunderbird Cabriolet, Chevrolet Doble Phaeton... bezalakoak ikusteaz gain, motor



Jendetza bildu zen atzo kalean motorrak-eta ikusteko. I.TERRADILLOS

produktuen merkatu zabala izango da, 100 saltoki ingurutan banatuta, hain zuzen.

Gainera, erakusketa gaur amaituko bada ere, aurtengo Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Erakusketaren berrikuntza datorren larunbatean izango da. Hilaren 18an, sanjoanetako lehen festa ekitaldi modura,

Tolosako zezen-plazan egingo dute trial erakustaldia. Lau txapeldun ariko dira bertan, Iker Lezeta, Alberto Gomez, Miguel Anjel Jimenez eta Carlos Ramos. Scooter NS 125 DLX bat zozketatuko dute erakustaldi amaieran; txartelak Cheyenne moto dendan eta Oria hoteleko kafetegian daude salgai.

IBARRA ▶

Gipuzkoako II. mailako Aizkolari Txapelketa, gaur

Gaur, 12:30ean hasita, Gipuzkoako II. mailako Aizkolari Txapelketa izango da Ibarra-k San Bartolome plazan (euria egiten badu Belabieta kiroldegian). Xepla elkarteak 25. urteurrenean antolatzen duen ekitaldian 12 aizkolari lehiatuko dira, Unai Otaño, Jesus Mari Mujika, Juan Manuel Erasun eta Joseba Otaegi eskualdeko aizkolariak barne, eta kanaerdiko 4 enbor eta 60ko 2 enbor ebaki beharko dituzte.

LIZARTZA ▶

Bihar 20:00etan konzentrazioa udaletxe aurrean

Haimar Altuna lizartzar preso politikoa gose greban aurkitzen da. Hori dela-eta bihar udaletxe aurrean 20:00etan konzentrazioa egingo dute herriko presoari elkartasuna adierazteko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Germikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Omenaldi beroa adinekoei

1917an jaiotako Harizpe elkarteko sei lagunei egin zieten kideek atzo

I. ETXEBESTE

Harizpe Jubilatuen eta Pentsiodunen elkarteko arduradunek antolatuta, omenaldi beroa egin zieten atzo adinekoren artean zaharrenak diren sei laguni: Elias del Villarrek, Jose Leundak, Leonides Garciak, Mari Cruz Egañak, Hilarion Ba-

lerdik eta Maria Patrociniok —1917an jaiotakoak, denak— jaso zuten omena eta agurra gainerako kideen aldetik. Hasteko, meza izan zuten Jesusen Zerbitzarien elizatzoxan Tolosako parrokoaren eskutik, eta jarraian mokadutxoa zerbitzatu zieten omenduei Harizpe elkartean. Fronton kafetegian

bazkari aparta egin ahal izan zuten ondoren, eta Iribarren taldekoek alaitu zuten bazkalostearen bertako giroa. Omenduek pozarren jaso zituzten jaira hurbildutako zozorion agurrak, eta, 88 urte bete-ta edo betetzear dituztenean, «zoriontsu» sentitzen direla esan zuten. Bejondeiala!



Omenaldia egiteko, Fronton kafetegian bildu ziren. I. TERRADILLOS

ALEGIA ▶ KULTURA

Euskal dantza aitzaki hartu, eta festara!

200 dantzari inguruk egin zuen bat atzo Haur Dantzarien I. Topaketan

ERREDAKZIOA

Euskal dantza aitzaki hartuta, festa giroan izan ziren atzo abetik eta bestetik Alegiara bildutako haurrak. Izan ere, Haur Dantzarien I. Topaketa antolatu zuen Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrek, eta bertako kideen esanetan, 200 bat dantzari egin zuten bat ekimenarekin. Helburu argi batekin sortu zuten topaketa hori antolatzaileek: «haur dantzarien artean talde dantzak bultzatzea eta suspertzea».

Euskal dantzaren egoera ez da samurra azken urteetan. Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarreko ordezkariak diote eskolarteko jaialdia desagertu zirenetik «taldeko dantzen garrantzia murriztu» egin dela «bakarkako dantzen alde», eta

egoera horri irtenbidea ematekotan egin nahi izan dutela ekimen hori lehendabizikoz. Bada aurrerantzean zer gertatuko den esaterik ez dago, baina atzokoan euskal dantzei indarra ematea lortu zutenik ezin da ukatu. Alegian bertan, Beasainen, Behobian, Irunen, Donostian edota Usurbilen ikasitakoak ederki erakutsi zituzten haurrek jendaurrean, norberak bere erara, eta topaketari elkarrekin eman zioten bukaera, gainera: guztiek batera, dantza eginez.



Haur ugari bildu ziren atzo arratsaldean Alegian Haur Dantzarien I. Topaketa ospatzeko. I. TERRADILLOS

Esperientzia handia duen ileapaintzailea behar da
Ordutegi interesgarria
943 67 19 34

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

bixitegia

Zumeta

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Autoa. Clio 1.9D salgai. Egoera onean. 665 72 30 68.

LANA
Tabernaria. Tolosaldeko neska bat udan tabernan lan egiteko prest dago. Esperientziaduna. 650 66 20 35.
Etzeko lanak. Pertsona bat behar da etzeko lanak egiteko. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. 600 euro + Gizarte Segurantza. Erreferentziak guztiz beharrezkoak dira. Bidali 240 Posta Kutxa, 20400, Tolosa.
Sukaldaria. Asteburuak eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. 943691933

BERRIA egunkariak edizio digitaleko diseinatzailea behar du

Lanpostua betetzeko ezaugarriak:

- Webguneak diseinatzeko tresnak menperatzea: Dreamweaver, Photoshop.
- MySQL Datu baseen programazioa menperatzea.
- PHP programazio hizkuntza menperatzea.
- Flash programa ezagutze.

Interesa izanez gero, curriculuma bidali ekainaren 21erako gb@berria.info helbidera

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologiak

ELHUYAR
Aholkularitza

- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparrurik landutako euskara-planak udalerrietan: lan/mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak

www.elhuyar aholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
Tel. 943 372052 (Usurbil) 94 466816 (Durango)



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Bihar 20:00etan ezker abertzalearen bilera gela polibalentean.
Ibarra. Gipuzkoako 2. Mailako Aizkolari Txapelketa. Plazan 12:30ean.
Lizartza. Jose Miguel Etxebarria *Naparra*-ri omenaldia Igarola-bekoa baserrian 12:00etan.
Tolosa. Ibilgailu Klasikoan XI. Erakusketa Ferialekuan 09:00etatik 20:00etara.
Tolosa. Juan Crespo eta Ramon Blancoren argazkien erakusketa musikaz Fronton kafetegian. Gaur da azken eguna.
Tolosa. Eskopetari konpainietan atera nahi dutenentzat: Nesken konpainiarako 600 56 16 71 telefonora deitu eta Kabi Alai konpainiarako Beatriz dendan eman izena.
Tolosa. Adinekoen Astea lurreamendi egoiztan. Bihar 10:30ean meza, 11:00etan txupinazoa, 11:30ean loteria kafetegian eta 17:00etan merienda berezia Jesus Mari Ibañezek alaituta.
Tolosa. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanaren bilera Kultur Etxean bihar 20:00etan.
Tolosa. Errosteko eta saltzeko Internetek zer aukera ematen dituen; negozio edo enpresa txikiak nola aplikatu ditzaketen. Etzi 18:00etan LH Institutuan.
Tolosa. Michel Marmier doktoreak *Kirrola nola egin bizkarra* hondatu gabe hitzaldia emango du etzi 19:30ean Kultur Etxean.
Orendain. Euskadiko Sega Kanporaketa. Zubeltzu azpi zelaian 17:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *Un rey en La Habana.* Leidor zinemari 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.

Bihar
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.
Tolosa. M.I. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Herritik atera gabe

TOLOSA ▶ Gustura ospatu dute haurrek eta gaztetxoek Pako Eguna; Jurasiko parkean egin zituzten ekitaldi gehienak atzo: guztiak ere, herrian bertan

ERREDAKZIOA

Nork uste du eskualdeko haurrek eta gaztetxoek ezin dutela herritik atera gabe ondo pasatu? Txikienekin bete-beteta egoten dira egunero haur parkeak —Foruen etorbideko berria da, ziu-rrenik, jende gehien erakar-tzen duena—, eta zaharragoek ere bilatzen dute astero-astero lagunekin elkartzeko lekua. Duela hilabete batzuetatik hona Topalekura joateko aukera dute horiek, gainera.

Topalekua bideratzen duten Gazte Guneak eta Tolosako Udaleko Gazteria sailak, bada, Pako Eguna antolatzen zuten atzoko. Orokorrean bertara joaten diren 13 eta 17 urte-tarteko gaztetxoentzat baka-rrik ez; haurrentzat ere bai. Eki-



Ondo pasatu zuten atzo haurrek eta gaztetxoek herrian. I. TERRADILLOS

menari izena ematen dion lekuan, Jurasiko parkean, egin zituzten ekintza gehienak hitzorduarekin bat egin zutenek, baina beste hainbat lekutatik ere igaro ziren: patinekin herri-ri itzulia ematerakoan, adibidez.

Txikienek elkarrekin ospatu zuten Pako Eguna, eta handienek ere gauza bera egin zuten. Eguraldiak majo erantzun zion antolatzaileek iragarritako egunari, bestalde, eta ekimen guztiak «primeran» atera zirela esan zuten Udaleko Gazteria sailako eta Gazte Guneako ordezkariak. Batzuen ahalegina-ri eta besteen partaidetzari esker, herritik mugitu ere egin gabe haurrek eta gaztetxoek ondo pasatzeko aukera izan badutela erakutsi dute beste behin. Eta hala izan bedi.

AGURRAK ▶

URTE ASKOAN M. Victoria Ortiz (Alitza). Zorionak amaboi!	URTE ASKOAN Unai Iribarr (Ibarra). Gaur 6 urte. Zorionak denon partetik.	URTE ASKOAN Arantxa (Izaskun). Zorionak amaboi. Bihar 3 ^o urte. Ondu pasa biharko eguna. Aimir, iraitz eta Ugaitz.	ZORIONAK Jokin eta Josune. Bihar hilabete Ugaitz gure familietara ekarri zenuela. Muxu handi bana, zuen familiaren partetik.	

HITZA, zorion agurren tartea

HITZAren egoiztelarari Araba etorbidea, 5 beheko TOLOSA Udaltxeko bulegoan LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

25 ZALDI GABEROKO ZEZENKETA FESTIJO DE REJONES "EL SIERRO"	26 CORRIDA DE TOROS MURIZ DEL CUVILLO
BOHORQUEZ SERGIO GALAN IVAN MAGRO	JAVIER CONDE MORANTE PUEBLA "CAYETANO"
24 BERRAÑEREN ZEZENKETA I. LEINAKETEA CORRIDA DE RESORTE LIBRE CON BOVILLOS-TOROS "BERRAÑA - CUABARRAZA"	

Informazioa eta erreserbak : 943 64 16 66 10:00 - 12:00 17:00 - 21:00
659 67 65 70

Abonoak berritzeko edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 7tik 9ra 11 etatik 14 etara eta 17 etatik 19 etara, Eta Donostiako Venta Curro (Avda. Madrid) ekainaren 10etik 11ra.

Zezenketen egunetan, 10:00etatik aurrera sarrerak salgai egongo dira plaza bertan.

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

TOLOSA

- Bar "Asteasuarrak" 943 673 186
- Café Bar "Frontón" 943 651 470
- Asador "Orue" 943 651 911
- Bar "Cantabrico" 943 653 987
- Bar "66" 943 671 937

SAN SEBASTIAN

- Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara
- Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial

BAIONA Office de Turismo
0033 559 460 146 Place des Basques